



## **EHUNKA LAGUNEN HITZORDUA**

Igandean Usurbil eta Aginaga artean bilduko dira andoaindarrak eta urnietarrak, Gure Esku Dago ekimenak deituta. / 2-3



## **Euskaraldiaren hamaikakoa aurkeztu dute**

Gizarte, kirol eta kultur mailako eragileen babesean, Euskaraldiaren irudi eta ikur bilakatuko diren Andoaingo hamaika lagunak aurkezpena egin berri dute / 8-9



**Beñat Erkizia mendi lasterkariaren lekukotza Zegama-Aizkorri maratokia amaitu ostean / 13**

**San Juan jaietako kartela aurkeztu dute, berrikuntzak iragartzearekin batera / 16**

**Larunbatean hasita, Urnietako udal igerileku irekiak atek zabalduko ditu / 14**



**Nestor Orozko prestatzaile fisikoak Zipreko futboleko bizi izan duen esperientzia / 12-13**

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

**Igandea bertan izanik, giza katea antolatzeke Urnietako lantaldean egotea zer nolako esperientzia pertsonala izan da zuretzat?**

Sei-zazpi urte daramatzat bakarrik Urnietan bizitzen, eta dinamika honek herriko giza mugimenduak eta pertsonak ezagutzeko aukera eman dit. Antolakuntza aldetik, berandu abiatu ginela eta gauzak hobeto egin zitezkeela iruditzen zait. Esperientzia horren barruan hiru gazte taldera hurbiltzea gauza positiboa izan da. Hori gaur egun luxua baliz bezala ikusten dugu. Errelebo berria nekez ari da hurbiltzen, eta arrazoiak bilatzen jarrita gazteak *pasotak* direla azkar esaten da. Gauza konplexuagoa dela pentsatzen dut nik. Ezintasun bat dago, lehengo belaunaldien ikusmoldeak gaurko belaunaldiarekin lotu ezinik gabilta. Belaunaldi berriak *pasota* batzuk direnik ez da egia, kexu dira eta ez daude konforme.

**Erabakitze eskubidea bezalako kontzeptuak urrunekoak egiten zaizkiela uste al duzu?**

Gure herrian, oso praktika luzea egin dugu kantuak aipatzen duen "dena ala ezer ez" logika haren baitan. Kultura politiko hori oso hedatua egon da. Orain gogoeta politiko lasaia egitera iritsi garenean, "dena ala ezer ez" ez dela etorkizuneko bidea ikusi dugu. Herri honek bere burujabetza eskuratu nahi badu, beste nonbaitetik iritsiko da hori. Zein den eguneroko errebindikazioan garatu beharreko estrategia eta bidean landu beharreko taktika, horretan asmatu ezinik gabilta.

Nire ustez, erabakitze eskubidea oinarritzko errebindikazio nagusietakoa da. Ez baldin bagara lortutako demokrazia apurraren elementu horiei eusteko gai, oso bide eskasetik joan gitezke.

**Ikus daitekeenez, euskaldun komunitatea mugimendu honi estuago lotuta dago. Gerta al daiteke euskaldun ez denaren artean halako aurkako erreakzioa piztea?**

**"ETORKIZUNEAN ZER IZAN NAHI DUGUN ERABAKITZEA MODU KOLEKTIBOAN HARTU BEHAR DA"**

# "Bakarka arituz ez dago gure etorkizuna idazterik"

**KOLDO TAPIA URNIETAKO GURE ESKU DAGO TALDEKO PARTAIDEA**

Igandeko giza katearen antolaketan hainbat lagun burubelarri ibili dira lanean. Tartean, Koldo Tapia bera. Bere hausnarketei erreparatzea interesgarria da



Koldo Tapia Urnietako Gure Esku Dago taldeko kideetakoa da. AJURRI

Erantzun ezinik gabiltzan beste galdera bat da. Herri honetan integrazio maila ona eman dela esan daiteke, baina euskararen eta abertzaletasunaren artean garatu den kultura politikoan halako horma eraiki da. Eta hor, kasu batzuetan, talka modukoa sortzen da. Erabakitze eskubidea bezalako mugimenduak sortzen direnean, formulazioetan edo beste mailako erabakietan gorpuzkera ematen saiatzen garenean, txispak azaltzen dira. Hori ondoen Nafarroan ikusten da. **Gure Esku Dago mugimenduak onarpen zabala du euskal gizartean. Kataluniako udazkeneko gertaerek, ordea, Espainiako batasunaren aldeko erreakzioa piztu zuen. Baita gure herrietan ere.**

Denbora beharko da Katalunian bizitakoa aztertzeke. Guzti hartatik zer geratuko den ikusteko dago. Hasiara batean bloke modura lan egin zuten, baina bloke hori lehertuta dago eta barne indar korrelazioa zein den ez dago garbi. Parametroak falta zaizkigu. Ondorio orokor batzuk geratu dira. Bat, frankismo osteko trantsizio garaian haustura demokratikorik egon ez izanak frankismo soziologikoak zeukan eremu hura ez zela disolbatu. Urte askoan soziologia hori lasai egon da, baina Kataluniak bere burujabetzaren aldeko asmoa agertu duenean, soziologia hori aktibatuta egin da. Beste fenomeno bat gertatu da,

Euskal Herrian zerikusi zuzena duena. Eta hori alderdi sozialistaren jokabidea izan da. Espainiako nazionalismoaren kontzeptu horretan, sozialisten paperak mugimendu hori askoz ere zabalagoa izateko bidea eman du. Hori dela eta gizarte sektore bat oldartu egin da.

Frankismoaren garaiko kutsua duen jarrera horri aurre egiteko, ordea, alderdi politiko askok alternatiba eraginkorrik gabe jarraitzen dute. Horrek erabakitze eskubidearen mugimenduari modu negatiboan eragiten dio.

**Igandera begira, aurreikuspenak betetzeko aukera izango al da?**

Baietz esango nuke. Azken unean, herri honek tradizioz egin ohi duen bezala, kolpea emango duela esango nuke. Beharbada desordenatu samarra izango da, ziurrenik sinadura eman dutenak baina herritar gehiago hurbilduko direlako giza katera.

**Bertratzten denari zein aholku emango zenioke?**

Lasai eta denboraz joan daitezela. Aurreko giza katetik ikasi beharra dago: jendeari izugarri kostatzen zaio ulertzea lerroa osatu behar dugula eta hori ez dela azken minutuan egiten den zerbait. Taldean edo borobilean hizketan egoteko joera dago, baina antolakuntzaren ikuspegitik oso garrantzitsua da giza katean parte hartuko dutenek ilaran egotea. Arreta pixka bat izan dezatela. Ilara hori lehenago egiten hasi behar da. Garrantzitsua izango da hori. 12:00etarako den denak prest egon beharko dugu, bakoitza bere tokian.

**Antolaketan zabilzatenak bihar-munean pozik egoteko zer beharko zenukete?**

Igandean eguraldiak lagundu beharko liguke, horrelako ekintza baterako ezinbesteko baldintzatak delako. Antolakuntzak helburu gisa jarritako ehun mila lagun horiek elkartzeko poz handia litzateke. Eta, bestetik, bertaratzten den jendea estimulu edo animo berezi batekin etxeratzea. Gizartearen kohesioa eta ideia batekiko identifikazioa behar-beharrezkoa delako. Euskal gizarteak hori behar du. Mundu bakarti honetan badirudi gauzak bakarrik konpontzen direla. Gure etorkizuna bakarka jokatuz ez dago idazterik. Gizarte mailako erronkak, etorkizunean zer izan nahi dugun erabakitzea modu kolektiboan hartu behar da.



2014ko ekainean bezalaxe, oraingoan ere ehunka andoaindar eta urnietar abiatuko dira Usurbil-Aginaga aldera giza katean parte hartzera. AIURRI

# Gizakatea

EKAINAK 10

eman eskua etorki *zu*hari

gure esku dago

**ANDOAIN**

**Gizakatea**

**USURBIL-AGINAGA**

**ANDOAIN**

**URNIETA**

**Gizakatea**

**AGINAGA**

**URNIETA**

- **Irteera:**  
10:00 Makaldegia.
- **Giza katea:**  
11:30 Bakoitza bere tokian.  
12:00-12:30 Giza-katea.

- **Itzulera:**  
Giza katea amaituta,  
Andoainera edota Donostiara.
- **Eraman beharrekoa:**  
Zapia, busean joateko agiria.

- **Irteera:**  
10:00 Anbulategi zaharretik.
- **Giza katea:**  
11:30 Bakoitza bere tokian.  
12:00-12:30 Giza-katea.

- **Itzulera:**  
12:50 Busak Urnietara itzuliko dira.
- **Eraman beharrekoa:**  
Zapia, busean joateko agiria.

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**GIZA KATEAREN JARRAIPENA: FACEBOOK, TWITTER, INSTAGRAM**

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

## Demoskopia

Urtebete barru alkate eta zinegotzi karguak berrituko dituzte udalerrri guztietan, eta atzera zenbaketa hasi da. Uda lasaia datorrela dirudi, udazkenetik aurrera hasiko da aurre kanpainaren aurre kanpaina. Alderdietako buruzagiek ez dute beharbada presa handirik izango, baina hautagaien inguruko galderak egiten hasi zaizkie batzuei eta besteei. Normala da, hedabideen agendan erdigunean kokatzen ari den gaia baita. Dagoeneko egunkari ezberdinetan hasi dira agintaldiaren balorazioa egiten, eta 2019ko udaberrirako datorrenaren aurreikuspenak egiten. Hedabide horietako batean honakoa irakurri nuen: "PPren helburua egun Gipuzkoan duen batzarkide bakarrari eustea izango da, eta zinegotziak izan zituen hainbat Udaletxera itzultzea; besteak beste Andoainen". Tira, umoretik heldu beharko zaio analisi horri. 2011n 561 boto eskuratu zituzten, 2015ean 289 boto. Gurtel eta bestelako korrupzio kasuak bor-bor diren bitartean Andoaingo Udaletxera itzultzea kostako zaio PPri. Demoskopiko jarrita, oraindik ere berrehun-hirurehun boto horietatik gertu egongo dira, nekez itzuliko dira bostehun botoetara.

EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Podemos alderdien emaitzatan asmatzea, hortxe dago apustua. Andoaingo 17 zinegotziak lau alderdi horien artean banatuko direlako. Lau alderdiek Madrilen bat egin dute, Mariano Rajoy Espainiako presidente kargutik kendu eta Pedro Sanchez jartzeko. Agintaldia zaila dirudi, baina adituek diotenez jeltzaleek eta sozialistek ez dute hauteskundeak deitzeko berebiziko presarik. Zer nolako eragina izango du horrek Udal hauteskundeetan? Gauzak bare badoaz, Espainiako Gobernuak agintaldia ondo samar doan irudia zabaltzen asmatzen badu, egoera horrek Andoaingo sozialistei mesede egingo die. Beharko dute zerbait, Udal hauteskundeetan 2007tik 2015era bidean ia bostehun boto galdu dituztelako.

Podemosek Kale Nagusian bulegoa zabalik du, Andoainen errotzeko gogoaren seinale. Irabazi Andoain eta Ganemos Andoain bat eginik ari dira lanean, zinegotzi ez atxikiarekin batera. Helburu lorgarritzat izango dute bi zinegotzi eskuratzea.

Eta alderdi abertzaleei dagokionez zer? EH Bildu Udal hauteskundeetan gaur gaurkoz boto gehien biltzen dituen alderdia da. EAJ-PNV, berriz, Andoainen goruntz dator hauteskunder z hauteskunde, eta Euskadiko iritzi publiko zabalean kudeatzaile eraginkorraren prestigio hori badu.

Kiniela eta apustu kontuetan sartuta, garrantzitsuena falta da: Hautagaien izen-abizenak jakitea. Hain fidelak ez diren botuemaile horiek erakartzeko ezinbestekoa izango da hori jakitea. Lehia zirrargarria aurreikusten da.

## POSTONTZIAN

### Logo eta lema lehiaketa

#### SALKIN ELKARTEA

Oinarriak, laburbilduz, hauexek dira:

- Helburua: Logotipoa eta eslogana diseinatzea. Andoaingo merkataritza-zerbitzu txikiaren baloreak islatuko dituzten logotipoa eta eslogana.
- Parte-hartzaileak: Nahi duten gizabanako eta taldeek parte har dezakete. Lehiakide bakoitzak gehienez bi diseinu aurkez ditzake.
- Proposamena: diseinua eta eslogana orijinalak eta berriak izango dira.
- Dokumentazioa: A4 tamainako gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, eta "Logotipo eta Eslogana lehiaketa" baino ez du jarriko gutun-azalean.

Barruan ondokoak sartuko dira:

- A4 neurriko orria, lehiaketarako erabiliko den izengoitia idatzia eta ondokoak:
- Logotipoaren eta esloganaren bertsioa neurri handian eta kolorez (25 x 11,5 cm gehienez).
- Logotipoaren bertsio txikia eta eslogana kolorez (6,5 x 3 cm gehienez).
- Euskarri digital estandarizatua (CD-rom, USB memoria) irudiarekin, jpg edo png formatuan. Irudiak 1.800 pixeleko tamaina izan behar du, eta 300 pixeleko bereizmena. Artxiboak lehiakidearen izengoitiaren izena izan behar du.

- Bigarren gutun-azal itxi bat, eta barruan izena, telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta egilearen datu pertsonalak.
- Aurkezteko epea: Ekainaren 15a. Ondarreta kalea, 6. Ordutegia: 9:00-12:00.
- Epaimahaia: Elkarteko zuzendaritza batzarrak eta merkataritza-zerbitzu txikia dinamizatzeo kanpainaren arduradunek osatuko dute epaimahaia.
- Epaimahaiaren erabakia: aurkeztutako diseinu guztietatik bat aukeratu du epaimahaiak, eta hori izango da irabazlea.
- Saria: saria 500 euroko erosketara txartela.
- Jabetza intelektuala: elkartearena izango da soilik eta betiko.

#### POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketatzailea:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publicitatea@aiurri.eus  
**Banatzaileak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ  
 ALJATUAK: ALJATUAK  
 TOKIKOM  
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
 ANDOAINGO UDALA  
 URNIETA UDALA  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:  
 EUSKO INJURIAKETA GOBERNO VASCO  
 GIPUZKOAKO FORU AHDUNDIA  
 Hildamiz Berlinguasmerako Zuzendaritza  
 ZIURTAGIRIA:  
 2017 Bitkarn  
 BABESLEAK:  
 Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## PROTAGONISTA

# "Portugalera jokatzera joan izanak herriko gazteen arreta piztea ekarri du"

JOSE RAMON ELUSTONDO IRIARTE URNIETA KIROL ELKARTEKO ESKUBALOI TALDEKO KIDEA

## Erredakzioa ANDOAIN Denboraldi amaierara zein egoeratan iritsi zarete?

Senior mailan nahiko ondo iritsi gara denboraldi amaierara. Neskek igoera fasea jokatzeko aukera izan zuten eta horrek meritua handia du. Senior mutilak azken fasera iristen saiatu baziren ere, ez zuten helburua lortu. Jubenil mutilek nahiko denboraldi ona egin dute bigarren urteko kadete mutilen laguntzarekin. Jubenil neskek ahal dutena egin dute eta infantil neska eta mutilekin batera mailari eutsi diote. Orokorrean denboraldi ona izan da.

## Afari batekin amaiera emango diozue, larunbat honetan.

Bai, urtero elkartzen ditugu talde guztiak, baita guraso eta entrenatzaileak ere. Gainera afariaren aurretik, larunbat arratsaldean 16:30etan hasita, kiroldegian guraso, jokalarik eta entrenatzaileen arteko lagunarteko partidak jokatu ditugu.



lazko ospakizunean, UKEko eskubaloi ataleko jokalarik, prestatzaile eta gurasoak. UKE

Afarian talde eta pertsona ezberdinei opariak eta aitortzak eskaintzen dizkiegu. Ondoren, denboraldiaren laburpen modura, ikusentzunezkoa emititzen dugu eta ondoren nahi duenak dantzaldian parte har dezake.

## Orain denboraldia amaitu dela, datorren denboraldirako aurreikuspenik egin al duzue?

Berrikuntzak egongo dira baina oraindik konfirmatzeko daude. Denboraldiaren aurkezpena baino lehen itxita egotea espero dugu.

## Indartsu al dago eskubaloia Urnietan?

Bai. Portugalera joan izanak garrantzia izan du gazteen artean. Indar gehien duena futbola da, baina hor jarraitu nahi ez duenak eskubaloian hasteko aukera du.

## HAU ERE BADUGU!

## Iñaki Albin ekintzailea zendu da

Iñaki Albin Diaz hil zen joan den ostiralean, 79 urte zituela. Toñi Abelló zen bere emaztea, eta bi seme-alaba zituen, Asier eta Sheila. Albinek urtetan aulki gurgildunean ibili behar izan zuen, eta ezinduen eskubideen aldeko lanean nabarmendu zen. Traba arkitektoniko eta urbanistikoak salatzea izan zen bere zeregina, eta erakunde publikoetan erabilerraztasunaren aldeko neurriak eskatuz kontu ezin ahala ate jo zituen.

Frankotiratzaille baten moduan aritu zen urtetan, 2011ko urtarrilean Aiurriri aitortu izan zion moduan: "Ero puska naizela esaten didate; makina bat alditan iraindu naute, eta baita mehatxuak jaso ere!".

2009an Europako Batasunak Bruselan dituen bulegoetaraino heldu zen: "RENFeko ibilbide motz zein luzeko trenetan sartzeko arazoak izaten ditugula-eta, irtenbideak eskatzera joan nintzen". Giza eskubideen eta garraioen arloko arduradunek hartu zuten. Handik bi urtera Madrilgo gobernuko Fomento organismoak erantzuna jaso zuen, azken urtetan zenbat neurri hartzen ari diren deskribatuz eta trenetan plataforma hidraulikoak ipintzen hasiak zirela adieraziz. Pozik agertu zen Albin: "Davidek Goliath irabazi duela sentitzen dut!".

## Altsasuko gazteak

Altsasuko gazteen aurkako epaiketak eta irmoa ez den sententziak gizartearen zati handi bat asaldatzea lortu dute. Erreakzioa berehalakoa izan da, eta Urnietan asteazken arratsaldean 40 lagun San Juan plazan elkartu ziren elkarretaratze zaratatsua egiteko. Andoainen ostiral honetan kontzentrazioa deitu dute Zumea plazan, iluntzeko 19:30ean hasita. Ekainaren 16rako nazio mailako manifestazioa deitu dute Iruñean.

## ZENBAKIA

## Hamaika

Hamaika egunez euskararen aldeko jokabide aktiboa izateko eskatuko zaie herritarrei, euskaldunak Ahobizi lanetan ipiniz eta euskara bidean direnak Belarriprest paperean jarritz. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte, hamaika egunez, kanpaina berezia izango da. Andoain lantaldea martxan da eta dagoeneko aurkezpen jendetsua egin dute.

Euskaraldiaren Hamaikakoa aurkeztu zuten joan zen ostiralean euskaldun zaharrak, berriak eta euskaldun izateko bidean dauden herrikideek osaturikoa. Aurkezpena lagun askorekin batera egin zuten. Eragile eta ordezkarik askoren babesa dute.

## GORA ETA BEHERA



## Beti besteen alde lanean ari diren herrikideak

Hogar Extremeñon jai bereziren bat dagoenean, sukalde lanetan hutsik egiten ez duen horietakoa da Antonio Gonzalez. Argazkian, elkarrekin laguntzeko asatu zuten ekitaldian ageri da txorixo egosia eta haragia Extremadurako erara prestatzen Yovana Canales elkarteko zuzendaritzako kidearekin batera.





Extremadurako folklorea Iruñeko "Raices y brotes" taldeak eskaini zuen Bastero auditorioan. **AJURRI**

## Sorterria ahaztu nahi ez duen giza komunitatea

Hogar Extremeño elkarteak Extremadura, Andaluzia eta Euskal Herriko abesti eta dantzen erakustaldia eskaini zuen Basteron, joan zen ostiralean. Biharamunean, irekiera ekitaldi instituzionala egin zuten elkartearen bertan. Ekitaldiz betea dator astea

### Xabier Lasa ANDOAIN

Extremadura (Raices y Brotes), Andaluzia (Zambra eta Zuena) eta Euskal Herriko (Erketz) folklorea nagusitu zen Bastero kulturagunean, ehunka ikusleren gozamenarako. Andoango Zuena elkarteko kideek sevillanak dantzatzearaz gain, baltsa, saltsa eta pasodobleko estiloei ere heldu zieten. Extremadurako kultura, folklorea, ohiturak eta gastronomia sustatzea helburu duen ekitaldi sortak larunbatean izan zuen jarraipena, Andoango Udal agintari eta kultur elkartei egin

zitzaien harrera ekitaldiaren eskutik. Extremaduran jatorria duten herritar hurbildu zen ekitaldira, gazteak zein helduak, batzuk bertan jaiotakoak eta besteak Andoainen jaiotako bigarren edo hirugarren belaunaldikoak. Guztiek ere Extremadurako ereserkia abestu zuten, lehenengo eta behin. Ondoren, Extremadurako jaki eta edari tradizionalak dastatzeko aukera eduki zuten. Kultur ekitaldia ekitaldiz josita dator, eta asteburuan zehar amaiera emango diote.

### Ekitaldiak igandera bitarte

Astearen hasiera haur ekitaldiak antolatu eta gero, ostegunean azken txanpari ekingo diote.

#### Ekainak 7, osteguna

18:00 Patata tortilla lehiaketa.

#### Ekainak 8, ostirala

18:00 Sardin jatea.

#### Ekainak 9, larunbata

10:00 Miga lehiaketa.

12:00 Toka txapelketa.

19:00 Mahai jokoen finala.

#### Ekainak 10, igandea

18:00 Kultur astearen amaiera ekitaldia, sari banaketarekin.



### Harrera ekitaldiko adierazpena

**MARI CARMEN PORTILLO** HOGAR EXTREMEÑO ELKARTEA

"Gustatuko litzaidake, extremeñoak garenez, ongiotzori beroena eta maitekorrena ematen hastea. Sorterria utzi beharrean izan ginen eta hemen Andoainen gure bigarren lurraldea topatu dugu. Hori dela eta, gustura esan dezakegu euskal extremeñoak

garela. Eskolan irakatsi ziguten Extremadura bi zirela: Cáceres eta Badajoz. Baina egun hauetan pentsatu nahiko nuke Extremadura hiru direla: Cáceres, Badajoz eta Andoain. Aurten kultur astearen 40. urteurrena betetzen da eta, beti bezala, hain

ondo zaindu gaituzten andoaindarrak antolatu diren ekitaldietara parte hartzera gonbidatu nahiko genituzke. Gurekin batera gure gastronomiaz, dantzaz edota ohiruz goza dezatela. Egund hauetan saiatuko gara gure jaiotzeko lurraldearen zatitxo bat gure adopzioko lurraldera ekartzen. Gora Extremadura! Gora Andoain!"

### Harrera ekitaldia ekainaren bian



Astearte arratsaldean kultur lehiaketan parte hartu zuten hainbat kide.

**Lehiaketa** Zutik: Jose Rasero, Ana Sanchez, Jose Manuel Rey, Pablo Portillo eta Javier Gonzalez. Eserita, Jose Luis Rodriguez, Elisabeth de la Peña, Amparo Moreno, Tomas Guzman eta Francisco Hernandez.



Hamaiketakoak egiten eta zerbitzatzen ibili zen taldea. **AJURRI**

**Tradizioa** Extremadurako pintxo eta ardo dastaketa egin zuten larunbat eguerdian, Hogar Extremeño elkartearen. Bolondres taldearen lanari esker, hamaiketakoak primerakoa izan zen.



Erakusketan parte hartzen ari diren ikasleak, irakaslearekin batera. **AJURRI**

**Erakusketa** Igandera bitarte, Zuenako ikasleen lanak ikusgai izango dira. Argazkian, ezker-eskuin: Jerusalem Basterra, Maria Mata irakaslea, Marci Guerrero, Lurdes Izagirre eta Tere Paniego.



Arbona (Lapurdi) eta Oztibarreko (Nafarroa Beherea) dantzariak Kotoi elkartearen hamaitetakoa egin ostean. AIURRI

# Andoain euskal folkloreaken hiriburua

Hogeita hamar urtez errepikatzen den jaialdia ezinbestean erreferentziazkoa bilakatzen da. Urki taldeak euskal folklorea biziberritzeko lan handia egiten du, bertako kideen lana eta Euskal Herri osoko joerak jendaurrean erakutsiz

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Euskal Herri osotik etorritako dantzariak, txistulariak, bertso-lariak, trikitilariak, abesbatzak eta musika taldeak Haurren Euskal Jaialdiaren edizio berri-  
ra hurbildu ziren, Andoain euskal folkloreaken hiriburu bilakatuz.

Eguraldia lagun, jaialdi borobila izan zen. Hauexek izan ziren aurtengoan kalez kale eta taula gainean aritu ziren taldeak: Leitza, Lekunberri, Ultzama, Lizarran (Nafarroa); Zaldibar (Bizkaia); Ozkibar (Behe-Nafarroa) eta Arbona (Lapurdi), eta, Lasarte-Oria eta Zarautz (Gipuzkoa).

Horiekin batera, anfitrioi lanetan, Andoaingo ordezkaritza zabala: Urki taldeko gazteak, Andoaingo Bertso eskolako gazteak eta Udal Musika Eskolako abesbatza txikiak. Jaialdia aurrera ateratzeko gurasoen eta bolondresen lana goraiatu behar da, ezinbestean.



Andoaingo gazteen bertso eskolako kideak: Ion Beloki, Eneko Brosa, Manex Etxeberria, Eneko Beloki, Iñaki Lopez de Munain, Julen Gaztañaga eta Eneko Rubio. AIURRI

## Jaialdi borobila, eguraldia lagun



Urkiko txikiak, adi-adi taldekide nagusigoei begira Goikoplazan. AIURRI



Urkiko gazteak Brokel dantza eskainiz. AIURRI



Iparraldeko dantzariak Sardinera dantzari ekinez, Zumea plazan. AIURRI



Zarautzeko trikitilariak. AIURRI



Andoainen, Udalarekin batera, ikastetxeak, kirol eta kultur elkarteak eta euskaltzaleak Euskaraldia antolatzeko lehen urratsak ematen hasi dira. AIURRI

# Euskaraldiaren hamaikakoa

Alor ezberdinetan erreferentzia diren hamaika andoaindar izango dira Euskaraldiaren babesle nagusiak. Herri eragile eta ordezkari zabalak babestuta, Euskaraldiak jendaurreko aurkezpena egin berri du. Ekimen gehiago izango dira, azarora bitarte

**J.A.Ubeda / A.Senperena** ANDOAIN  
Euskaraz bizi nahi duten aditu eta euskaltzaleen artean kezka aspaldikoa zen. Azken hamarkadako hitzun kopuru handiena izanik, euskararen erabilera ez zuen aurrera egiten. Erabilera areagotzea erronka modura hartu zen, eta Lasarte-Oria edota Donostiako auzune ezberdinetan esperimentazio ezberdinak egin zituzten. Giltza ez dago erabiltzaile hutsean, baita inguruan ere. Erabiltzen duen eta dakien jende asko dago, baina baita ez dakienik edota


jendaurrean ondo moldatzen ez dakienik ere. Hitz egiten eta ulertzen dutenen artean sinergiak bilatuz, Lasarte-Orian Ahobizi eta Belarriprest rola sortu zituzten. Ahobizi euskaraduna da, eta hitz egiteko eta ulertzeko gai da. Belarriprest eus-

**IRAILEAN  
HERRITARREK  
EUSKARALDIAN IZENA  
EMATEKO AUKERA  
IZANGO DUTE**

kararen unibertsoan kokatzen da, ulermen maila badu eta euskara gertukoa zaio. Bada, biak elkar lotuz, euskara bilgune eta zubi modura erabili zen. Fenomeno hori datuetara eramane zuten, eta esperimentazioaren ostean euskararen erabilera %21 hazi zen. Are gehiago, saikera igaro eta hiru hilabetera hazkunde handi hori puntu pare bat baino ez zen murriztu. Euskaraz bizi nahi duten aditu eta euskaltzaleak etorkizunerako estrategia berria marrazten hasi ziren orduan. Hortik dator, be-

raz, udazkenean Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldia egitas-moa. Euskararen erabilera sustatzeko saikera garrantzitsua izango da, erakunde instituzionalak eta herri ekimenak elkarlanean jarri dituenak.

Andoainen, Udalarekin batera, ikastetxeak, kirol eta kultur elkarteak eta norbanakoak Euskaraldia antolatzeko lehen urratsak ematen hasi dira. Joan zen ostiralean Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian Euskaraldiaren ikur izango den hamaikakoa aurkeztu zuten. Bakoitza bere ezagutza mailatik baina guztiak eguneroan euskararen aldeko konpromisoa erakusten ari dira. Ahobizi paperean arituko dira batzuk, Belarriprest modura besteak. Egun hauetan hamaikakoaren aurkezpen bideoa zabaldu da, eta laster hamaikakoaren partaide bakoitzaren bideo banatan euskararekiko hamaika esperientzia personal ezagutuko dira.



Aurrerapen modura, Iñaki Zabaleta apaiza Ahobizi izango da Euskaraldian: "Nire garaian giro erdalduna nagusi zen kalean, eta baita eskolan ere. Gurasoek etxean euskaraz egiten zuten, baina guri askotan gaztelerez egiten ziguten. Anai arrebeekin ere euskaraz eta gaztelerez jarduten genuen, baina gehienetan gaztelera hutsean hitz egiten pasatzen genuen eguna. 15-16 urte nituenean konturatu nintzen euskaldundu beharra nuela eta orduan hasi nintzen ikasten".

Belarriprest modura arituko da Oliva Caballero. La Salle Berrozpe ikastetxeko jangelak egiten du lan. Sortzez Caceresekoa da, eta txikia zela Andoainera etorri zen bizitzera. Euskara galdu ezin den ondarea dela dio: "Txikitan euskal dantza taldean egon nintzen eta bertako kulturarekin maitemindu nintzen. Euskara hizkuntza oso polita dela iruditzen zait. Desberdina eta polita da, ezin dugu galdu".





**EÑAUT EGAÑA**  
IKASLEA

"Euskaraldia aukera oso polita da gure ingurunea pixka bat gehiago euskalduntzeko".



**ANA CARRERO**  
AUTOESKOLAKO LANGILEA

"Saiatuko naiz euskaraz gehiago hitz egiten baina gaztelaraz hobeto moldatzen naiz".



**LEIRE REKALDE**  
HEZITZAILEA

"Hasieran zaila dela irudituko zaie baina erdaldunei pixkanaka hasteko esango nieke".



**MERCE BRAU**  
CORREOSEKO LANGILEA

"Inguruan gehienak euskaraz egiten dute eta gutxienez euskara ulertu behar nuela erabaki nuen".



**OLIVA CABALLERO**  
JANGELAKO LANGILEA

"35 urterekin hasi nintzen euskaltegian, beste haurren gurasoek euskaraz hitz egiten zutela ikusita".



**ESTEBE LOPEZ DE MUNAIN**  
LORAZAINA

"Euskararen aldeko saiakera egitea eskatuko nieke, beraiek bizi diren kulturaren parte delako".



**EUGENIO DELGADO**  
MUSIKARIA

"Musika da euskal kulturatik gehien gustatzen zaidana. Edozein hizkuntza altxor bat da. Aberastu dezagun gure bizitza. Hitz egin eta gozatu".



**INES MIRON**  
GURASO ELKARTEKO KIDEA

"Nire helburua kalean euskaraz hitz egitea zen. Euskaraldian Belarriprest izateko konpromisoa hartuko dut, Ahobizi bezala ez bait naiz eroso sentituko".



**IÑAKI ZABALETA**  
APAIZA

"Euskara mundua ikusteko begirada bat da eta nire barrutik ateratzen da. Nik beti maite izan dut euskara. Euskaraldian Ahobizi izango naiz".



**INMA CIRES**  
ERIZAINA

"Oso hizkuntza aberatsa da ingurukoekin hitz egiteko, komunikatzeko eta kulturaren berri izateko. Zaila da ikastea, baina behin lortuta merezi du".



**IZASKUN AIZPURUA**  
IKASLEA

"Euskarak batzeko balio du. Ezagutu izan dut Madrilerara bizitzera joan den jendea eta beraien artean euskaraz hitz egiteko geratzen direnak".



Txanbolin txistulari taldeko kideen atzetik, Egape dantza taldeko kideak. AIURRI

## Dantzariak Idiazabal kalea hartu zutenekoa

Asteburuko eguraldiaren aurreikuspena onena ez bazen ere, eguzkipean igaro zen Urnieta Dantzan jaialdiko atalik garrantzitsuenak. Goizeko kalejira eta San Juan plazako, Idiazabal kaleko eta Plazido Muxika plazako saioak bikain irten ziren

### Amaia Senperena URNIETA

Jaione Jauregi jaialdiaren antolatzaileetakoak balorazio oso positiboa egin du: "Eguraldiak lagundu zuen, beraz egun paregabea izan zen". Gainera, hasierako helburuak martxan jarraitzen dutela gaineratu du, urtean zehar ikasitako guztia

kalera ateratzeak duen indarra azpimarratuz. Zazpi urtetik gorako gazteak izan ziren Idiazabal kaleko desfilean parte hartu zuten dantzariak. Ondoren dantza gehiago ikusi ahal izan zen San Juan plazan eta Plazido Muxika plazan. Adin guztietako dantzariak ikusteko aukera izan

zen, larunbatean. Jaialdia ez zen eguerdiko saiora mugatu, jaiak arratsaldean ere jarraipena izan zuelako. Arratsaldean Muramendiarazen saio gidatua eta Jaiki Hadi musika taldearen ikuskizuna izan ziren. Errero-riarekin amaitu zen eguna, Zubitxo plazan.



Urnieta dantzan aurtengo edizioan Idiazabal kalea trafikora itxi zuten, dantza saioei tarte eskaintzeko. AIURRI

### Kalea dantzari eta txistulariarena



Helduenek ere dantza egiteko aukera baliatu zuten. J.ELUSTONDO



Plazido Muxika plazan saio nagusia eskaini zuten, eguerdian. J.ELUSTONDO



Txikitxoek San Juan plazan, emanaldia egin ostean. J.ELUSTONDO



Txanbolin txistulari taldeko kideak, Plazido Muxika plazan. J.ELUSTONDO



Txoritagainen 90 ibilgailurako aparkalekua prest eduki nahi dute, udazkenerako. UDALA

# Egunerokoa errazteko lan ezberdinak martxan

Obra txikiak izanik ere, eraginkortasun handikoak dira. Aparkalekuen arazoa arintzeko plaza berriak egokitzen hasiko dira Txoritagainen. Plazido Muxika plazan, bestalde, oztopoak murriztuko dituzte eta Urrakan segurtasun barandak berritu dituzte

## Amaia Senperena URNIETA

Lau hilabeteko tartea aurreikusten da Txoritagainen egingo dituzten 90 aparkaleku publikoen lanak amaitzeko. Beraz, ikasturte hasierarako lanak amaituta egotea espero da. Aparkalekuez gain, Udala irisgarritasuna bermatzeko neurriak

hartzen ari da. Plazido Muxika plazan, esaterako, Eroski ondolik hasi eta Denda Berri jubilatuen egoitzarainoko bidean aldaketa nabarmenak egingo dituzte.

Lanak faseka egingo dituzte, eraikuntza lanek bizilagunengan ahalik eta kalte gutxien sor de-

zaten. Eskailerak eta hainbat oztopo arkitektoniko kendu nahi dituzte, irisgarritasuna bermatzeko duen malda erosoagoa ipiniz.

Hori guztiaz gain, Urraka auzoan eraiki den igogailuaren bi alboetan baranda berriak ipini dituzte.



Eroskitik eta Denda Berri elkar lotzeko bidea arinduko dute.



Urrakan, igogailuaren bi alboetako barandak berritu dituzte.



Iturola Elkarlan sorguneko kideak, taldeko argazkian. ITUROLA ELKARLAN SORGUNEA

## Iturola elkarlan sorgunea, eskualdetik abiatu den ekimena

Beterri-Buruntza eskualdeko lehen elkarlan sorgunea da, lankidetzaz sozialean eta ekonomikoan oinarri duena

### Olatz Lasa BETERRI-BURUNTZA

Jendartearen beharrei erantzuteko asmoz abiatu da Hernaniko Iturola Elkarlan Sorgunea. Aran Erasun Iturulako kideak hartu du hitza eta adierazi duenez, "Iturola lanak partekatzeke espazioa da. Proiektu ekonomiko berriak sortzen ari garenontzako lekua. Proiektu berrien sorgunea. Fabrika. Laborategia". Bi helburu nagusi ditu. Batetik, enplegu duina sustatzea, eta bigarrenik, eskualdeko behar sozioekonomikoak asebetetzea.

Elkarlana du oinarri Iturulak. Ekintzaile bakoitzak bere denbora, gaitasunak eta esperientziak elkarbanatzeko konpromisoa hartzen du, modu horretan proiektu berritzaileetan lan eginez.

### Hamar proiekturen etxea

Urte eta erdiko lana du atzean Iturulak, eta bidean proiektu

ezberdinak sortu dira. Hauexek martxan dauden hamar proiektuak: I do photography lab, Arremanitz, Txukuntzen, Thais naiz, ARK, Eh!Trip, Harago, Ingutek, Bira Produksioak eta TaPuntu.

Proiektuak hazteko eta tokiko ekonomia sustatzeko helburuarekin, eskualdeko bi komunitateekin saretu da Iturola: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea eta Usurbilgo Kabiene Elkarlan Gunea. Martin Ugalde Kultur Parkeak ere Iturularen antzeko prozesua hasi zuen orain dela bi urte. "Parkean genuen jakintza nolabait partekatu nahi genuen, bakoitzak dakiena bestearekin eskainiz", azaldu du Ane Fernandezek.

### Informazio gehiago

Iturola.eus gunean, info@iturola.eus helbide elektronikoan edo 943 256 347 telefono zenbakian.



**Andoni Urbistondo** URNIETA

Iazko ekaina erdialdean maleta ilusioz bete eta Poloniara joan zen, Zipreko AEK Larnaca taldearen aurre-denboraldira batzeko, eta maiatzaren 20an bueltatu da. Titulua eta Kopa bat besapean. Kontent da Nestor Orozko (33 urte): "Txapelketarik irabazi gabea nintzen infantil mailatik, pentsa...". Zipre eta futbola ditu hizpide, kirol diziplina horren aurpegi onak, eta ez hain onak. Gozatzen ari da orain etxean, bikotearekin, koardilarekin, etxekoekin, eta ez daki non eta zer egiten egongo den irailean: "futbol talderen batean, akaso. Edo irakasle. Datorrena gustura hartuko dut". Eskatzeko baimena balu, zintzo: "Zipre baino gertuago tokiren bat".

**la urtea pasa da Urnieta utzi eta atzerrira joan zinenetik. Atzera begiratu egin eta zer ikusten duzu?**

Hasiera Polonian izan zen. Erosoa. Aurre-denboraldia. Erraztasun asko eman zizkiguten han, 8 futbol zelai guretzat. Aldaketa sakonena hizkuntzarena izan zen. Komunikazioa ia dena ingelesez zen, Imanol Idiakez entrenatzailea eta kirol arduradunarekin izan ezik [horiekin gaztelaniaz]. Europa League txapelketa erronka mamitsua da AEK Larnacarentzat, ekonomikoki funtsezkoa. Teknikari oi esan zigutenez, kanporaketak gainditu eta multzoen fasean sartzen baginen, urteko soldaten erdia ordaintzen omen zuten. Prestaketa fisiko azkarra eta eraginkorra egin behar zen, ni Poloniara iritsi eta hiru astera Europa League-eko lehen partida baikenuen Faron (Portugal), Gibraltargo talde baten aurka. Faron egon ginen, Cork-en (Irlanda), Pilzen-en (Txekia)... Pilzen-eko Viktoriak kaleratu gintuen, multzoen fasera iristeko atarian [txekiarrak final laurdenetara iritsi ziren, gero].

**Kolpea izango zen, multzoen fasea ez jokatzea, ezta?**

Bai, batez ere gertatu zen moduagatik. 0-1 ginen aurretik, 0-2koa lortzeko aukera garbia huts egin genuen, eta gero, ba buelta eman zioten, eta kalera. Aste gaizto samarra izan zen, baina Liga berehala hasi zen. Lehen partida irabazi genuen, eta Europako atsekabe hura desagertzen joan zen pixkanaka. **Nolakoa izan da zure egunerokoa Larnacan?**



Nestor Orozko urnietarra, Zipreko esperientzia eta gero, Euskal Herrian da berriro.

# "Aberasgarria izan da AEK Larnacako esperientzia"

**NESTOR OROZKO PRESTATZAILE FISIKOA ETA IRAKASLEA**

**FUTBOLA** la hamaika hilabete eman ditu etxeko epeletik urrun. Tarte horretan bisitaldi bakarra egin du etxera, Gabonetan. Presioa handia izan arren, pozarren itzuli da

07:00tan jaiki eta 08:00tan klubean lanean hasten nintzen. Imanolekin batzartu, lan saioa prestatzeko. Goiz, beti, urrira arte edo bero handia egiten duelako. Hezea, gainera. Behin eguneko

**"PRESIOA ZER DEN EZAGUTZEN NUEN, BAINA ZIPREN PAIRATU DUGUN BEZAIN GORDIN EZ"**

adostuta, ni gimnasia joaten nintzen, prebentzio lana egitera jokalariekin: lesioak saihesteko lana, eta beste. Nahi zuenak ere lan estra izaten zuen, nik prestatuta, gimnasioan. Imanol eta bere bikotearekin bazkaltzen nuen gehienetan, eta bazkaldu ostean, etxera. Baina etengabeko komunikazioan Imanol Idiakerekin. Arratsaldean hurrengo eguneko ariketak prestatzen nituen. Laburbilduz, lanpetuta. Ia egun osoa futbolari lotuta ematen nuen.

**Nolakoa da Zipreko Liga?**

Diferentzia handiak daude taldeen artean. Badaude 6-7 talde Liga lortzeko lehian daudenak. AEK Larnaca horietako bat da, eta multzo hori eta beste taldeen artean nabaritzen da apalagoak direla. Sei onenen artean borroka oso gordina izaten da, batez ere Ligako azken fasean, non sei onenek elkarren aurka jokatzen duten. Hapoel Limassol da, denek gainditu nahi duten aurkaria. Oso zaletu sutsuak dira zipretarrak.

**Alderaketaren bat egin zenezake, erreferentzia bat izateko?**

Ez nuke asmatuko esaten zerekin alderatu daitekeen AEK Larnaca, han Liga berezia delako. Espainiako 2. Mailan, adibidez, parekotasun handia dago. Zipren alde handiagoak daude. Europa Liga izan liteke baremo ona. Multzoko taldeen fasea jokatzen egon ginen. Dimentsioa ezberdina da, nahiz eta Zipre izan! Europa League jokatzen duzu, eta Liga bat irabazteko lehian murgiltzen zara. Exijentzia handia da, eta nire lanean hori sentitu dut, gauzak ondo, txukun egiteko exigentzia.

**Exijentzia bai, eta presioa?**

Handia. Oso aldakorra aste batetik bestera. Presioa zer den ezagutzen nuen, baina hain gordin ez... Bi partida galtzen bazenituen jarraian, tentsioa sumatzen zenuen. Asteazken-larunbat, bi partida jokatu, biak galdu, eta, dena aldatzen da. Batez ere jabeen iritzia. Eta aurreko hiru hilabeteetan dena irabazita! Hasieratik garbi genuen, bizpahiru emaitza txarrekin etxera bueltatu behar izatea suposa zezakeela. Halakorik gerta daitekeela lehenbailehen asumitzea, onena. Hau futbola da. Imanol Idiakerek titulu bat irabazi du orain hilabete bat, eta gaur-gaurkoz langabezian dago.

**Atzera begiratu eta bost urte egin dituzu dagoeneko prestatzaile lanetan. Lau Real Union taldean, Iruenen, eta bat Zipren. Ez dira asko, hori esan dezaketena. Futboleko bidea egiten segitzeko tarterik ikusten duzu?**

Harro nago egindako lanaz. Eta pluralean hitz egiten dut. Nik badakit Imanol Idiakerek bidea egingo duela futboleko, entrenatzaile ona delako. Imanol Idiakerekin baldin banago, futbol ideia berbera daukagulako da. Ea biok batera jarraitzeko aukera dugun.

**Eta Imanol Idiakerekin gabe, posible ikusten al duzu?**

Gai sentitzen naiz beste entrenatzaile batekin bidea egiteko, baina argi daukat. Imanolekin futbola eta beste gauza askori buruzko ikuspuntua partekatzen dut, gustura gaude, ondo moldatzen gara, eta ez dut biderik ikusten Imanol Idiakerekin gabe. Baina era berean, hau futbola da... Entrenatzaile askorekin aritu izan naiz lanean, eta denetatik ikasi dut zerbait: Alvaro



Idiákez eta Orozko, Zipreko koparekin.

Cervera, Roberto Olabe, Sergio Francisco, Imanol Idiákez, Miguel Sola...

### Futbolari lotuta jarraitzen baduzu, garbi duzu etxetik kanpo, urrun izanen dela. Asumituta duzu?

Bai, hala ez balitz ez nintzatekeelako Zipreraino joango. Zorionez bikoteak nire lanbideak dituen ezaugarriak onartuak ditu, eta futbolarekin zerikusia duen lanbidea bada, normalena Euskal Herritik kanpo jardutea da. Urretxun bizi gara, eta jakina, elkarrekin biziko bagina, ba hobe, baina gaur-gaurkoz ezin dut jakin zein norabide hartuko dudana hilabete barru.

### Aukeratzeko baimena emango babilizute, ze destinu aukeratu zenuke?

Reala, noski, baina Asier Gariñano fitxatu dute dagoeneko, beraz... Etxetik gertu balitz gertu, hobe. Espainiako 2. Mailan, Portugalen, Frantzia, Dena izango da Zipre baino gertuago. Han urte osoa egin dut, 11 hilabetetan behin bakarrik bueltatu naiz etxera... Ez naiz damutzen

joan izanaz, baina ez da erama-ten erraza.

### 18 urterekin Madrilerako jo zenuen Heziketa Fisikoa ikastera... eta begira non zauden orain! Pentsatu ere ez, orduan, ezta?

Bai zera... Erotuta ere ez! 18 urterekin ez da pentsatzen 33 urterekin non eta zertan ariko zaren!

### Futbolak ia denbora guztia jan dizula esan duzu, beste zerbait egiteko astirik eduki duzu?

Hango egunerokoan murgiltzen saiatu naiz. AEK Larnaca taldeko atezainen entrenatzailea greziar-zipretarra da, baina Turkiak mendean hartutako Zipreko aldean jaio zen (uharte erdiak Greziako administrazioa dauka, eta beste erdiak Turkia-koa). Bere jaioterritik hanka egin behar izan zuten berak eta aitona, Turkiak euren jaioterrira inbaditu zuelako. Oso interesgarria izan da niretzat bere sentipenak ezagutzea. Berez giroa baketsua da, baina Europak egun duen konfliktu zaharrena da, eta NBE hor ari da, bi aldeekin negoziatzen. Greziako Zipretetik Turkiara pasatzea bizitza guztian gogoratzen den ekintza da: txarrantxaz jositako muga da, eta horrek zer pentsatua ematen du. Historia zalea naiz, eta izan ditudan ordu apurrrak hango egoeraz ikasteko baliatu dut.

### Irakasle lana faltan botu duzu?

Bizitzak esango du hurrengo urtean futbolari edo irakasletzari lotuta egongo naizen, baina bat edo beste izan, gustura hartuko dut.

### Ez duzu esango datorren denboraldirako esku artean eskaintzaren bat ba ote duzuen, ezta?

[Barrez] Une honetan ez dugu ezer, benetan. Azkar jakingo da baina oraintxe ez daukagu ezer!



NIRE USTEZ

BEÑAT ERKIZIA MENDI LASTERKARIA

## Zegama-Aizkorri mendi lasterketaren kontakizuna

Maiatzak 27, goizeko 8:30ak Zegaman. Hantxe nengoen, hainbeste urtetan amestu dudana Zegama-Aizkorri mendi maratona hasteko prest. Ibilbidean zehar 42 kilometro eta 5.472 metroko gora behera metatua. Errespetua, bai. Gogoa ere bai. Jon Ugaldere azken animoak jaso eta irteerara. Zortea izan nuen irteeran bere laguntza izateaz: kirolari bikaina da, baina pertsona paregabea.

Lehenengo kilometroak aldapan gora egin genituen, nahiko erritmo erosoan. Ez nuen estutu nahi, ez nekien eta nola erantzungo zidan gorputzak azken kilometroetan. Indarrak gorde nahi nituen. Kataluniar batekin iritsi nintzen Otzaurtera, 7. kilometrorara. Bertan gurasoen animoak jaso eta berriz beste igoera bat, Ultzama pasa eta Beunda parkera behe-laino artean iritsi arte. Beundan lehengusua agurtu eta aurrera.

8-10 korrikalariko taldetxo batean sartu nintzen eta Aratzeraino beraiekin joatea erabaki nuen. Konturatzera Atabarretako tarteko denbora kontrola zapaldu genuen, 14. kilometroan. Ordulariari begiratu eta denboraz ondo gindoazen, sentsazioak ere onak ziren. Aratz igotzen ari ginela jan-edari postuan geldialditxo bat egin nuen zerbait jan eta indarrak hartzeko. Aratz puntan ez

zegoen lainorik eta paisaiatz gozatzeko aukera izan genuen korrikalariok, ikusleen etengabeko oihuen artean.

Beheraka hasi ginen eta taldea sakabanatu egin zen. Aldapan behera gindoazela korrikalari batzuk lurrera joan ginen lokatzaren ondorioz. Elkarriz altxatzen lagundu eta, inork minik hartu ez zuela ziurtatu ondoren, aurrera jarraitu genuen. Lokatz asko zegoen eta nahi baino polikiago jaitsi ginen, hala ere jaitsieraz gozaten. San Adriango tunela pasa eta Sancti Spiritura iristen ari nintzela Zuriñeren animoak jaso nituen. Lan erdiak eginda.

Aizkorriara igotzen hasi nintzen, ikusleek bidea irekitzen zidaten bitartean. Hura zen zarata! Hura zen animatzeko modua! Begiak itxi eta momentuaz gozatu, ezin nuen besterik egin. Izugarria izan zen.

Aurrerago, 20. kilometroan, Aitor zegoen itxaroten, beti bezala edozertan laguntzeko prest. Ez dakit zer esan zidan, oraindik ere aurreko aldapako jendearen oihuekin harrirituta nengoen. Ura eskaini zidan. Eztarria busti eta aurrera.

Aizkorri igotzen asko disfrutatu nuen, indarrez ondo aurkitzen nintzen eta hanke ondo erantzuten zidaten oraindik. Aizkorriko puntan Jon Iturraldearen animoak jaso eta Aitzurira abiatu nintzen. Eta Aitzuritik Urbiara.

Urbiara iritsi nintzen, 28. kilometrorara. Azkeneko igoera nuen parean: Andraitz. Maldan gora abiatu eta hantxe zeuden koadrilako lagunak niri itxaroten. Sekulako laguntza eskaini zidaten, berriro ere Sancti Spirituko igoeran nengoela zirudien. Andraitz igo eta Zegamaraino jaitsiera besterik ez zen geratzen.

Azkeneko kilometroak bakarrik egin nituen. Bakardadeak ere motibazioa mantentzeko gai nintzela erakutsi zidan. Geroz eta gertuago nuen helburua. Azken hilabeteetan egindako lan guztia etorri zitzaidan burura. Azken urteetan izandako lesioek kirolik egin gabe utzi nauten denbora guztia. Bi aldakatan ebakuntzak. Errehabilitazio saio guztiak. Momentu gogorak benetan.

Zorionez, 42. kilometrorara gerturatzen ari nintzen, eta helmugara iritsiko nintzela geroz eta argiago neukan.

Handik gutxira herriko plazan sartu eta helmuga malko artean gurutzatu nuen. Helburua bete nuen, ametsa egia bihurtu zen. Antolakuntzak eta jendeak Zegama-Aizkorri mendi lasterketa bat baino gehiago dela erakutsi zidaten. Ez dago pareko lasterketarik. Nire lehendabiziko parte hartzea izan da, baina ziur ez dela azkena izan. Zegama Zegama da.

## Urnietarrak podiumean

**LASTERKETAK** Iñatzuko mendi lasterketan Haritz Zubillagak txapela jantzi zuen, eta Ainhoa Jauregi hirugarren sailkatu zen. Leitzako mendi lasterketan, bestalde, Igor Amantegi hirugarren sailkatu zen Raul Macaroren eta Iker Amantegiren tartean. Urnietarrak sasoi daude denboraldiaren sasoi honetan. Zorionak!



## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 7

**URNIETA Lehiaketa**

Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa. Sari bakarra, 450 eurokoa. Parte hartzeko azken eguna uztailaren 6a. Oinarriak: urnieta.eus.  
**Bertan, bulego ordutegia.**

**ANDOAIN Lehiaketa**

Patata tortila lehiaketa. Osagaiak antolaketaren esku.  
**Hogar Extremeño, 18:00.**

**URNIETA Kontzertua**

Lourdes Iriondo Musika Eskolako Ikasleen emanaldia: Saxofoia, klarineta, bonbardino, pianoa, trikitixa, panderoa eta perkusioa.  
**Sarobe, 18:30.**

## OSTIRALA 8

**ANDOAIN Entsegua**

Axeri dantza prestatzeko lehen saioa. Hurrengo entseguak: Ekainak 11, 15.  
**Ondarreta, 20:00.**

**ANDOAIN Erakusketa**

'Emakume raketistak', ekainaren 8tik 22ra.  
**Bastero, ohiko ordutegia.**

**URNIETA Kontzertua**

Musika Eskolako Ikasleen emanaldia: Trikitixa, panderoa eta pianoa.  
**Sarobe, 19:00.**

**URNIETA Sari banaketa**

Argazki rallyaren XXV. edizioa. Argazkiak Lekaion bertan ikusgai daude ekainaren 29ra arte  
**Lekaio, 19:00.**

## LARUNBATA 9

**ANDOAIN Ekitaldi sorta**

Migak (10:00), toka txapelketa (12:00) eta mahai jokoak (19:00).  
**Hogar Extremeño, egun osoan.**

**ANDOAIN Familia eguna**

Ikasturte amaierako festa La Sallen.  
**La Salle, egun osoan zehar.**

**ANDOAIN Ospakizuna**

Ikasturte amaierako festa ikastolan.  
**Txistoki, egun osoan zehar.**

**URNIETA Udako kanpaina datorren larunbatean abiatuko da**

Igerilekuak atek zabalduko ditu asteburuan. Uda giroko egunetan bertako igerilekuaz gozatzeko aukera izango da. Aurten igeriketa, spinning, zunba, patinaia eta tenisa eskainiko dituzte. Izen ematea, ekainaren 15era arte zabalik.  
**Ekainaren 9tik irailaren 9ra arte.**

**ANDOAIN Kontzertua**

Natural Project taldea zuzenean.  
**Bastero, ekitaldi aretoa. 20:00.**

**ANDOAIN Iturzaeta memoriala**

Mutilen arteko final laurdenak eta, ondoren, nesken mailako finalurrekoak. Euriarekin ez dira partidak jokatu.  
**Sorabilla, 16:00.**

**URNIETA Ospakizuna**

UKE taldeko eskubaloiz saileko taldeen afaria, denboraldi amaierako. Lehenago, 16:30ean hasita, lagunarteko partidak kiroldegian.  
**Oianume, 21:00.**

## IGANDEA 10

**ESKUALDEA Giza katea**

Gure Esku Dagoren ekimena, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuz. Usurbil eta Agina artean egokitu zaie andoaindarrei eta urnietarrei egotea.  
**Urnieta, Denda Berri. 10:00.**  
**Andoain, Makaldegia. 10:00.**

**ANDOAIN Amaiera ekitaldia**

Kultur Astearren sari banaketa ekitaldia.  
**Hogar Extremeño, 18:00.**

## OSTIRALA 15

**ANDOAIN Lehiaketa**

Salkin merkatarien elkarteak lema eta logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Sari bakarra: 500 euro. Lanak Ondarreta kaleko 6an duten egoitzan aurkeztu behar dira. Parte hartzeko azken eguna: Ekainak 15.  
**Ondarreta, 6. 09:00-12:00.**

**URNIETA Ikastaroa**

Udako ikastaroetan izena emateko azken eguna. Tenisa, patinaia, zunba, espinning eta igeriketa.  
**Udal kiroldegia.**

## LARUNBATA 16

**ANDOAIN Tailerra**

Autodefentsa feminista tailerra, emakumezkoentzat. Izena emateko epea ekainaren 11n, Urigain etxean.  
**Allurralde, 10:00-14:00, 16:00-20:00.**

**ANDOAIN Tailerra**

Ligatzeko tailerra, gizonezkoentzat. Izena emateko epea ekainaren 11n, Urigain etxean.  
**Urigain, 10:00-14:00.**

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El doctor de la felicidad**

Larunbata, 9:  
19:30; 22:00.  
Igandea, 10:  
19:30.  
Astelehena, 11:

19:30; 22:00.  
Ikuslearen eguna.

**Jurassic world: el reino caído**

Larunbata, 16:  
19:30; 22:00.  
Igandea, 17:  
19:30.  
Astelehena, 18:  
19:30; 22:00.

**"Raketistak lehen eta orain" dokumentala**

Asteartea, 12:  
18:30.  
Dokumentalari lotuta erakusketa zabalduko dute hilaren 8an, 22ra bitarte erakusketa gelan.

## SINOPSISIA

**"Raketistak lehen eta orain" dokumentala**

**Zuzendaria:** Jon Juanes Irigorri. **Herrialdea:** Euskal Herria (2018). **Hizkuntza:** Euskara.

## Emakume raketistak

1917tik 1980ra bitarte, modu profesionalean pilotan jardun zuten ehunka emakumeen

istorio isildua azaleratzen da "Emakume raketistak lehen eta orain" dokumentalean.

## San Juan sua udaletxetik bertatik



Aurten ere Udalak hamar herritarrei San Juan suaren ospakizunak udaletxeko balkoitik ikusteko aukera eskainiko die. Aukeraketa zozketa bidez egingo da. Zozketan parte-hartzeko izen-ematea zabalik dago hilaren 15era bitarte Andoain.

eus webgunean, Atarian arreta zerbitzuan eta Bastero Kulturgunean. Zozketa horretan bost pertsonen izenak aterako dira eta bakoitzak nahi duen laguntzailea eraman ahal izango du. Zozketa ekainaren 18an izango da eguerdiko 12:00etan hasita, udaletxean bertan.

## ZORION AGURRAK



URNIETA  
**Nora**  
Ondo-ondo pasa zure egunean printzesa. Maite zaitugu, muxuak.



URNIETA  
**Mikel**  
Ekainaren 2an Mikelek urteak bete zituen, zorionak eta muxuak familiaren partez..



URNIETA  
**Jare**  
Jarek 2 urte beteko ditu 8an. Zorionak eta muxu asko familiaren partez.



ANDOAIN  
**Nora Mendizabal**  
15 urte beteko dituzu ekainaren 8an. Muxu handi bat, amona Miren eta aitona Estebanen partetik.



ANDOAIN  
**Irati Fernandez**  
Zorionak pretxoxa! Muxurik goxonak zutzako mattia! Hiru urte handi jada!

## AZOKA

### IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktika-rako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059.

### LANA

Ikasle euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest**. 634 441 353.

AIURRI. AZOKA: diseinua@aiurri.eus

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

**Larunbata 9 eta igandea 10**  
DIAZ FERNANDEZ: Nagusia, 19.  
943 592 057. Andoain.

### URNIETA

**Larunbata 9 eta igandea 10**  
URRUTIA: Etxeberri, 1 (Florida).  
943 557 738. Urnieta.  
Gauetz, bi herrietan: Castilla.  
943 552 941. Hernani.

## Senior mailan hirugarrenak

Donostiako Anoeta mini estadioan, erreleboetako 4x400 metroko gizonzkoen Gipuzkoako txapelketa nagusian, urnietarrek brontzezko domina lortu zuten. Argazkian, ezker eskuin, Unai Roldan, Unai Iraola, Jon Ander Esteban eta Manex Arizmendi. Pistan, errepidean eta mendian urnietarrak maila bikaina erakusten ari dira.



## Finalaren atarian

Andoingo Areto futbol txapelketa azken txanpara iristen ari da. Asteburu honetan finalurrekoen itzuliko partidak jokatuko dira. Larunbatean, 14:30an hasita, Txalaka eta Akerbeltz taldeek Allurralden jokatuko dute (joanekoan 5-2). Igandean DAD Kutxa eta Keler 11:00tatik aurrera Arrate pilotalekuan. Joanekoan berdinketarekin amaitu zuten (2-2).



## Azken txanpa Sorabillan

Eguraldiaren baimenarekin, hori bai. Izan ere, antolatzaileek adierazi dutenez, "final zortzirenetatik aurrera euriarekin partidak ez jokatzea araututa dugu". Asteburuan euria eginez gero, partidak astebete atzeratuko dira. Aurten 49 bikotek parte hartu duzue, emakumezko 8 eta gizonzko 41. Finalaz gain, pala afari apustua iragarri dute. Zozketa bidez erabakiko dute azken hori.



**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

# Eskelak Aiurriin: 90 euro



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## San Juan jaietako berrikuntzen aurrerapena



### Erredakzioa ANDOAIN

Maidar Arabaolaza Agirrezabal-en "Sugarra" lanak zabalduko du aurtengo jaietako egitaraua. Udaleko kultura sailak datorren astean jai egitarauaren aldizkaria etxeko etxe banatzeari ekingo dio. Aurrerapen modukoa egin dute, ohar bidez. Elkarte gastronomikoen antolatuta, ekainaren 23an tortilla lehiaketa eta ondorengo tortilla eta ardo dastatzea izango da. Biharamunean munduko zaporeei tokia egingo diote. Herrian bizi den atzerriar talde batek bakoitzaren herrialdeko platerak prestatuko dituzte. Ekainaren 24ko herri kirol erakustaldian, bestalde, mundu mailan saritu dituzten emakumezko sokatira taldeak lehiatuko dira.

Adi aurtengo bertso saioari, Mendiluze, Lujanbio, Colina, Arzallus, Elortza eta Iguaran kantuan arituko baitira.

## AZKENA

# Ekonomia sozial eta eraldatzailearen azoka

"Alternaktiba Azoka" iragarri dute Andoaingo Juanita Alkain plazan, datorren ekainaren 16rako. Andoaingo Fiare Banka Etikoa elkarteak da antolatzailea, Andoaingo Udalarekin lankidetzan. Ekonomia sozial eta eraldatzaileari zabalkundea eman nahi diote

### Xabier Lasa ANDOAIN

Fiare Banka Etikoa kooperatiba moduan eratutako banku etikoa da, lankidetzak eta elkartasuna bultzatzea helburu duena.

Eredu ekonomiko alternatiboak ezagutaraztea da azokaren helburu nagusia. Horretarako, hainbat elkarte beren mahaia jarriko dute, informazioa emanez. Honakoak aurtengo partaidea:

- **GoiEner.** Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da, %100ean energia eredu berriztagarria lortzeko.
- **Ipar-haizea.** Zubietako errauskailuaren ondorio kaltegarrien inguruko informazioa zabaltzea du helburu.
- **Izarkom.** Telefono eta Internetarako zerbitzuetara sarbidea bermatuko digun telekomunikazio zerbitzu multzo batez hornitzeko helburuarekin sortua.
- **Kaleratzeak STOPeko Andoaingo plataforma.** Kaleratzeen aurrean babesgabe dauden aldeko lana egiten du.
- **Kontsumo taldea.** Aspilla. Produktu eredu agro-ekologikoaren bidez, ekoizle-kontsumitzaile harreman zuzena mantentzen da. Andoaineko ekoiztutako barazkiak.



Zulueta, Escudero, Azurmendi, Begiristain eta Baltasar aurkezpen ekitaldian. AIURRI

- **Koop57.** Aurrezki Etikoa bultzatzen duen finantzaketa zerbitzu kooperatiba da. Bere baliabideak ekonomia sozial eta solidarioa oinarri duten proiektuak mailaguz laguntzera bideratzen ditu.
- **KoopFabrika.** Ekonomia sozial berria eta ekintzailetasun soziala sustatzeko programa da.
- **Koworking.** Hainbat pertsonaren artean lokal bat partekatzeak coworking da, azpiegiturak

partekatuz joan-etorriak nahiz kostuak murrizten baitira.

- **Nortlan.** EAEko lehendabiziko aseguru korriduria etikoa eta elkartasunezkoa.
- **OlatuKoop.** Ekonomia sozial eta eraldatzailean jarduten duten enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatzen dute OlatuKoop sarea.
- **Otsaihen.** Garagardoa txikian. Hernaniko lau gazte martxan jarritako proiektua. Artisau

## Aurkezpen ekitaldiak

Azokan, elkarteek euren helburuak aurkeztuko dituzte. Egitaraua:

- 11:00-11:20** Fiare - Koop 57 (Finantza etikoa).
- 11:20-11:40** OlatuKoop - KoopFabrika (Ekonomia soziala).
- 11:40-12:00** Goiener - Nortlan-Izarkom (Kontsumo alternatibak).
- 12:00-13:00** Hitzaldia: Cristina de la Cruz Ayuso (ekoSolFem: Ekonomia Solidarioa eta Feminista).
- 13:00-13:20** Aspilla - Otsaihen (Elikadura alternatibak).
- 13:20-13:40** Kaleratzeak Stop - Proyde Proega (Beste mundu bat posible da).
- 13:40-14:00** Ipar Haizea (Ingurugiroa).


garagardoa, iragazi eta pasteurizatu gabea.

- **PROYDE- PROEGA.** Izaera pribatuko GGKEa da, lankidetzarako eta garapenerako sortua, laguntza sozialerako eta boluntariora sustatzeko
- **Andoaingo Liburutegia.** Postuan alternatiba ekonomikoak, ingurugiroa, elikadura burujabetza eta abarri buruzko liburu eta bideoak jarriko ditu esku-ragarri.

## Egunean eguneko albisteak sarean



Pentsiodunen elkarretaratzea



Quidditch Euskal Kopa



Altsasuko gazteekin elkartasuna

**AIURRI.EUS**

**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**